

Euskal AEko jaiotza-tasa EB-27ko baxuenetakoa da artean

Ordea, emakumeen bizi-itxaropena 84,8 urtekoa da, EB-27 herrietako altuena

Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27n jaiotzarik gutxien duten herrien artean dago kokatuta Eustatek lurralde esparru horiei dagokienez eskura dituen datuen arabera. Gure Erkidegoan 9,5 jaiotza daude 1.000 biztanleko eta horrek esan nahi du EB-27ko batez bestekoaren azpitik dagoela, eremu horretan 10,6 jaiotza daudelako 1.000 biztanleko. Italian gurea bezalakoa dute (9,5) eta bakarrik gainditzen ditugu Austria eta Eslovenia (9,4 bakoitzak), Lituania (9,2) eta Alemaniakoak (8,2). Espainian jaiotza-tasa hori 10,8koa da 1.000 biztanleko.

Jaiotzak eta heriotzak (1.000 bizt.) EB-27n

	Jaiotzak		Heriotzak	
	1975	2006	1975	2006
EB-27	14,7	10,6	10,7	9,5
Alemania	9,9,	8,2	12,6	10
Austria	12,4	9,4	12,7	9
Belgika	12,2	11,5	12,2	9,6
Bulgaria	16,6	9,6	10,3	14,7
Zipre	16,3	11,3	9,8	6,6
Danimarka	14,2	12	10,1	10,2
Eslovakia	20,6	10	9,5	9,9
Eslovenia	16,6	9,4	10,1	9
Espainia	18,8	10,8	8,4	8,4
Estonia	14,9	11,1	11,6	12,9
Finlandia	13,9	11,2	9,3	9,1
Frantzia	14,1	13	10,6	8,5
Grezia	15,7	10	8,9	9,4
Herbehereak	13	11,3	8,3	8,3
Hungaria	18,4	9,9	12,4	13,1
Irlanda	21,1	15,1	10,4	6,4
Italia	14,9	9,5	10	9,5
Letonia	14,2	9,7	12,2	14,5
Lituania	15,7	9,2	9,5	13,2
Luxenburgo	11,1	11,8	12,2	8,1
Malta	18,8	9,6	9,5	7,9
Polonia	19	9,8	8,7	9,7
Portugal	19,8	10	10,8	9,6
Erresuma Batua	12,4	12,4	11,8	8,3
Txekiar Errepublika	19,1	10,3	12,4	10,2
Errumania	19,6	10,2	9,3	12
Suecia	12,6	11,7	10,8	10
C.A. de Euskadi	19,1	9,5	7,1	8,7

Iturria: Eustat eta Eurostat

Datu hauek eta 1975 urtekoak erkatzen badira azken hamarkadetan gertatu den goitik beherako aldaketa antzematen da, urte horretan Euskal AEn 19,1 **jaiotza** egon zirelako 1.000 biztanleko. Orduan Espainian zenbatekoa 18,8koa izan zen eta gaur egun EB-27 eratzen duten herrien batez bestekoa adierazle honi dagokionez orduan 14,7 jaiotzakoa zen. Ondorioz, bi urte horien arteko aldea (1975-2006) askoz ere lausoagoa izan da gure Erkidegoan.

Heriotzei dagokionez Euskal AEk 7,1 heriotza zituen 1.000 biztanleko 1975ean eta 2006an hori 8,7 heriotzakoa zen. Espainian, urte horietan, 8,4 heriotzakoak ziren. EB-27ko datuak aztertzen badira 1975ean batez bestekoa 10,7 heriotzakoa zen 1.000 biztanleko, eta 2006an, ordea, 9,5 heriotzakoa.

Halaber interesgarria izan daiteke azpimarratzea Euskal AEn 2006 urtean **65 urte edo gehiagoko biztanleen** portzentajea (%18,7) altuenetakoa dela EB-27 herrietan (gurearen gainetik Alemania eta Italia baino ez daude) eta, aldi berean, 14 urte eta gutxiago dituzten biztanleen taldean portzentajerik baxuena dugula (%12,2). Portzentaje horiek Espainiaren kasuan hurrenez hurren %16,7 eta %14,5 ziren. Erreferentzia moduan 1996 urtea hartuta Euskal AEn portzentajea %16,1 zen 65 urtetik gorako kasuan eta %12,3 14 urte eta gazteagoen taldearen kasuan eta, Espainian eta hurrenez hurren, %13,4 eta %16,4.

Amaitzeko garrantzitsua den beste adierazle demografiko bat, **bizitza-itxaropena**. 2006ko urteko datuen arabera itxaropen hori Euskal AEn 77,3 urtekoa zen gizonentzat eta 84,8 urtekoa emakumeentzat, eta azken hori altuena da EB-27 herrietan. Espainian 2006an 77,7 urtekoa zen gizonen kasuan eta 84,4 urtekoa emakumeen kasuan.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 62 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Manu Riveiros

Tel.:+34-945-01 75 62 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak interneten: www.eustat.es